



Antzerki galaria



Sarrerak

Sarrera 12€koa izango da emanaldi bakoitzeko. Sarrerak antzezlanaren egin behar den antzokiaren lehiatilan eskuragarri egongo dira eta www.kutxabank.es zerbitzuan ere bai.

Abonuak

Denboraldi osorako abonuaren salneurria 72€-koa da eta erosteko epea urtarrilaren 11ra arte izango da, egun hori barne.

Abantailak eta baldintzak:

- Egitarau honetan aurkezten diren emanaldi guztietara sartzeko aukera izango da, Ordizian nahiz Beasainen izan.
- Abonatuek, bi herri horietan urtean zehar izango den antzerki programazioaz informazio zehatza jasoko dute.
- Abonuaren salmenta-lekuak: Herri Antzokiko leihatila (Ordizia), eta Usurbe Antzokiko leihatila (Beasain).

Taldeak

10 sarrera baino gehiago eskuratu nahi dituzten kultura talde, ikastetxe eta gisakoek, sarrera-prezio berezia izango dute: 10€ sarrerako. Taldeko sarrerak lortzeko dagokion udaleko kultura sailean aldeztu aurretik jakinarazi beharko da.

Arau orokorrak

Mesedez, etorri puntu-puntu.

Emanaldia hasiz gero, ez da aretoan sartzerik izango, etenaldiren bat izan arte. Etenaldia oso laburra izanez gero, iristeko errazak diren eta trabarik egingo ez duten eserlekuetara bakarrik utziko da pasatzen. Debatuta dago aretoan edonolako filmaketa nahiz grabaketarik egitea eta baita argazkiak ateratzea ere.